

*Familia Santua bi santarekin,*  
Anberesko Adorazioaren Maisuaren tailerraren lana



Catheline Périer-D'leteren

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

### **Argazki-kredituak**

- © Adri Verburg / Royal Museum of Fine Arts Antwerp: 16., 17. eta 18. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 6.-15., 22., 25., 28., 31., 33. eta 39. ir.
- © Christie's Images / The Bridgeman Art Library Nationality: 36. ir.
- Cortesía Catheline Périer-D'leteren: 24., 27., 30., 32. eta 34. ir.
- Cortesía Peter van den Brink: 35. ir.
- © Museum De Lakenhal, Leiden, The Netherlands: 2. ir.
- © Picture Library. Ashmolean Museum: 20. ir.
- © Prof. Dr. J.R.J. van Asperen de Boer / RKD, The Hague. Infrared reflectography was performed with a Grundig FA 70 television camera equipped with a Hamamatsu N 214 IR vidicon (1975); a Kodak wratten 87A filter cutting-on at 0.9 micron was placed between the vidicon target surface and the Zoomar 1:2 8/4 cm Macro Zoomatar lens. The television camera was mounted on a sturdy Linhof professional tripod with extension pieces, and a 90 cm sledge for moving the camera sideways. The monitor was a Grundig BG 12 with 875 television lines. Any documentation is done with a Nikon camera, a 50 mm macrolens, and Ilford film FP 4, ASA 125. The IRR-assembly/assemblies reproduced here consist(s) of images which were scanned from photo negatives belonging to the archive of Prof. Dr. J.R.J. van Asperen de Boer at the RKD: 19. ir.
- © Royal Museum of Fine Arts Antwerp / Lukas-Art in Flanders vzw: 3., 23., 26., 29. eta 37. ir.
- © Royal Museums of Fine Arts of Belgium, Brussels. Dig. photo: J. Geleyns / [www.roscaan.be](http://www.roscaan.be): 4. ir.
- © Suermondt-Ludwig-Museum (photo Rheinisches Bildarchiv, Cologne): 21. ir.
- © The Art Institute of Chicago. Gift of Mrs. Charles L. Hutchinson: 38. ir.

Argitalpena:

*Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 6. zenb., 2012, 39.-72. or

Babeslea:



**metro bilbao**

**A**ma Birjina eserita dago, tunika urdina zein mantu grantza-gorri zabala daramatza soinean eta Jesus Umea dauka altzoan [1. ir.]<sup>1</sup>. Umea biluzik dago, eta Santa Katalinak eskainitako eta gerezi betetako platererantz dago makurtuta. Santa Katalinak brokatutako soineko dotorea darama aldean, eta metal preziatuzko sorkiz apaindutako kofia aberatsa dauka buruan. San Jose zutik dago Mariaren atzean, eta apaltasunez kentzen du kapela. Bien bitartean, Santa Barbara San Joseri begira dago, eta, bizkar emanda, harrizko eserlekuan dago jesarrita. Eserlekuan, gainera, sagarra eta gereziak daude ikusgai. Santa Barbarak liburu irekia dauka esku batean; eta indioilarraren luma, bestean. Horrez gain, talde sakratuari begira dago. Hegoak zabalik dituen aingeruak lautea jotzen du, gotiko berantiarreko zenbait elementu eta apaingarri errenazentistak nahasten dituen eraikin hibridoaren aurrean. Atearen ezker aldean, harrizko zutabea dago, urre-koloreko kapitela du goiko aldean eta, gainean, *puttoa* dago jarrita. Jauregiko hormak, ordea, mundu paganoa gogora dakarkigun friso zizelkatua dauka apaingarri. Zenbait pertsonaia biluzik mazoaren bidez aurre egiten diote dragoiari, eta biluzik ere badauden gizona eta emakumea sugeak ateratzen ari dira zahaitzetik<sup>2</sup>. Argi urdinxkadun paisaia ederra eszenaren atzealdea da. Bitarteko planoan, enbor lodiko haritza nabarmentzen da zeruaren aldean. Pertsonaia txiki-txikiak daude han-hemenka, txabolen zein urmaelaren artean eta muinoan bertan.

Lana oso-osorik dago, lau ertzak margotu gabe daudelako eta bizarra bere horretan dagoelako. Edonola ere, oso orekatua den konposizioaren enkoadraketa berezia da erabat. Santen irudiak oholaren alboko ertzetatik hurbil-hurbil daude, eta euren arropak beheko aldean daude ebakita. Beraz, badirudi lana multzo bateko osagaia izan zela, erretaulako predela osatzen zuten margoen seriekoa, beharbada. Izan ere, kokapena berbera da Anberesko beste erretaula batzuetan; esate baterako, 1518ko Maisuak egindako Lübeckeko *Ama Birjinaren bizitza* lanean<sup>3</sup>. Era berean, erretaularen alboko paneleko erregistroa ere izan liteke, eta, bertan, bi eszena egon litezke gainjarrita, Lübeckekoan gertatzen den bezala<sup>4</sup>.

---

1 Baltikoko haritz-egurrezko oholak (55,6 x 40,7 cm) bi elementu bertikal ditu osagai (31 eta 24,7 cm), ertz zorrotzean daude mihizatuta eta erradiografian ikusgai dauden jatorrizko bi ziri enbutitu dituzte indargarri. Atzeko aldean, ondo landutako kalitate oneko egurrak zuntz erregularrak ditu. Aurreko aldean, ostera, lau ertzak margotu gabe daude, eta bizarra nahikoa lodia da. Margotu gabeko ertzetako zenbait gunetan, gorrimin apur bat agertzen da. Seguruenik, berantiarra den markoaren urre-koloreko erabilitako boloaren halabeharrezko aztarna da. Gainazal pikturikoan grabatutako marrazko konposizioaren muga zehazten du bizarretik zentimetro batera, gutxi gorabehera, baina elementuak haratago doaz. Atzeko aldean, Jado Bildumaren etiketa dago, eta, bertan, 26. zenbakia agertzen da. Beste etiketa batean, ordea, J.186 aipatzen da, hau da, 1932ko Plaszowen katalogoan agertzen den zenbakia, 49. or.

2 Erreferente literarioak gabeko eszena mitologikoa da, eta Antzinaro paganoaren mundua dakarkigu gogora. Didier Martensen esanetan, badirudi erliebe horiek mundu paganoaren adierazgarri direla eta kristautasunak garaituko duen nolabaiteko barrabaskeriarekin lotuta daudela. Izan ere, eskerrak ematen dizkiogu bere laguntzagatik.

3 Lübeckeko erretaulako (Marienkirche) predelako margolanen dimentsioak (45,7 x 40 cm) eta Bilboko panelarenak oso antzekoak dira.

4 Hoffmann 1998. Gorputz erdiko irudiak dituzten konposizioak Anberesko triptikoetan ere badira oso ohikoak. Bertan, hain zuzen ere, Errege Magoen Adorazioa irudikatzen da, batez ere. Dena dela, Bilboko oholan, bisagraren arrastorik ez dagoenez, ezin da egiaztatzea triptiko edo antzeko multzo bateko osagaia izan dela.



© Babestutako materiala

1. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra (jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)  
*Familia Santua bi santarekin*, c. 1520  
Olio haritz-oholean. 64,3 x 55,7 cm  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Inb. zenb. 69/79

*Familia Santua bi santarekin* Bilboko Arte Ederren Museoko Zaharberitze eta Kontserbazio Sailean zaharberritu zen 1996ko urtarrilean<sup>5</sup>. Euskarria<sup>6</sup> eta prestakina ondo zainduta zeudenez, gainazal piktorikoa baino ez zen garbitu, herdoildutako berniz-geruza lodia bezain trinkoa zeukalako margolanaren ertzetan eta gune ilunetan. Berniz horren ondorioz, oso-oso zaila zen konposizioa irakurtzea, eta betearazpeneko xehetasun tekniko sotilak ezkutatuta zeuden. Jatorrizko materiaren zati bat estaltzen zuten zenbait ukitu ezabatu ziren, eta hutsune txikiak urmargoan berrezarri ziren metodo ilusionistaren bidez. Gero, berriro bernizatu zen. Gainera, antzinako marko landua zaharberritu zen, kalitate bikainekoa zelako, jatorrizkoa izan ez arren<sup>7</sup>.

Margolana 1927an iritsi zen Bilboko Arte Ederren Museora, Laureano de Jadoren legatuaren barruan. Leidengo Cornelis Engebrectsz margolariaren<sup>8</sup> lan moduan sartu zen, eta, betidanik, autoretza horri eutsi zaio<sup>9</sup>. 1991. urtean, Xesqui Castañerrek lehen aldiz argudiatu zuen autoretza hori, eta, ondoren, 1995ean, defendatzeko asmoz, Bilboko margolana erkatu zuen literatura zientifikoaren arabera maisu horrenak omen diren beste lan batzuekin<sup>10</sup>.

Batez ere, Castañerrek konposizioak gai bereko eta antzeko formatuko margolan batekin dituen analogiak azpimarratzen ditu; margolan hori Hagako bilduma partikular batean dago<sup>11</sup>. Batik bat, gure ustez oso sendoak ez diren zenbait antzekotasun nabarmentzen ditu Ama Birjinaren, Umearen eta pasaiaren tipologian. Aitzitik, alde handiak nabaritzen ditu San Joseren irudian zein arkitekturan, eta, horrez gain, paralelismoak aipatzen ditu morfologian nahiz zenbait xehetasunetan, maisu holandarraren beste lan batzuk kontuan hartuta; hain zuzen ere, batez ere, Berlingo arte-merkatuan agertu zen Familia Santua hartu zuen kontuan<sup>12</sup>.

Bi Familia Santuak, Bilboko eta Hagakoa, aztertuz gero, gure iritziz agerikoa da antzekotasunak barik alde handiak daudela. Konposizioaren eraketa eta, batez ere, pertsonaia-taldeak bertan duen integrazioa eta, aldi berean, paisaiarekin zein arkitekturarekin duen lotunea beste proposamen baten emaitza dira. Elkarrekiko posizioak, jarrerak eta banan-banako adierazkortasunak oso antzekotasun gutxi dituzte. Drapeatuen hila-ri-estiloan baino ez da errepikatzen, baina, hortxe ere, Ama Birjinaren zein Santa Katalinaren arropetako tolesen marrazkia lehorragoa da Hagako bertsioan. Dureroren drapeatuaren eraginpean, horrelako drapeatuak estapanen bidez hedatu zirenez, garaiko margolan askotan agertzen dira. Beraz, ezin da autoretzarako irizpide moduan erabili era isolatuan.

Gure ustez, Bilboko *Familia Santua bi santarekin* ez da pintura holandarra, flandestarra baizik; bertako giro orokorra eta estiloa kontuan hartzen baditugu, Anberesko manierismoarekin eta, batez ere, 1520. urtearen inguruan lanean zeuden margolarien talde batekin dagoelako lotuta. Hain zuzen ere, Max J. Friedländerrek ohiko izenak eman dizkie margolari horiei<sup>13</sup>. Euren artean, honako hauexek nabarmenduko ditugu: Anberesko Adorazioko zein Gurutziltzaketako Maisuak, Adorazioko Von Groote Maisua eta Pseudo-Bles. Horrez gain, Jan de Beerrekin eta 1518ko Maisuarekin lotura zeukala iradokitzen duten zenbait xehetasun ere antzematen dira.

---

5 Bilboko Rotary Clubek eta Esklerosi Anizkoitzaren Eugenia Epalza Fundazioak zaharberritzea finantzatu zuten, eta, horren ostean, margolana erakusgai jarri zen 1996an.

6 Junturaren goiko aldean zein beheko aldean, jatorrizko bi ziri erantsi ziren, bi oholen atxikidura indartzeko.

7 Paloma Sánchez-Lassak pintura zaharberritu zuen; eta José Luis Merino Gorospek, markoa.

8 Cornelis Engebrectsz Leidenen jaio eta hil zen (1468-1533). Badirudi Colyn de Coterren tailerrean ikasi zuela, Anberesen lan egiten hasi eta bere tailerra eduki baino lehen. Ikus Pelink 1948-1949; Friedländer 1973, 79. or.

9 Lanen katalogoa... 1932, 49. or.; Lasterra 1969, 37. or., 79. kat.; Bilbo 1998, 277. zenb.; Bilboko Arte Ederren Museoa... 2006, 28. or. (Ana Sánchez-Lassaren fitxa).

10 Castañer 1991, 9.-11. or.; Castañer 1995, 36.-39. or.

11 Hagako margolanak 50 x 50 cm neurtzen du; eta Bilbokoak, 64,3 x 55,7 cm. 1991ko artikuluan, azken jabe ezaguna Hagan bizi zen T. Hermsen izan zela dio Xesqui Castañerrek (Castañer 1991, 11. or.).

12 Ibid., 39. or.

13 Friedländer 1915; Friedländer 1974, 11. or.



2. Cornelis Engebrechtsz (1468-1533)

*Gurutziltzaketaren triptikoa*, c. 1510

Olioa oholean. 198,5 x 146 cm (erdiko ohola); 15 x 109/99,5 cm (predela); 182,5 x 66 cm (ezkerreko ohola); 182,5 x 66 cm (eskuineko ohola)

Museum De Lakenhal, Leiden, Herbehereak

Inb. zenb. S 93

Zoritarrez, oraindik ez dakigu zehatz-mehatz maisu anonimo horiek nortzuk diren. Hori dela eta, horren inguruko hipotesiak baino ezin ditugu egin. Godehard Hoffmannek iradokitzen du aitortu egin behar dela Adriaen van Overbeck Anberesko Gurutziltzaketako Maisua dela<sup>14</sup>. Bestetik, Paul Philippotek<sup>15</sup> proposatutakoaren arabera, monograma bat dago Belgikako Musées Royaux des Beaux-Artseko *Errege Magoen Adorazioa* laneko ohol nagusiaren beheko aldeko ezker angeluan irudikatutako G letran, zeina lana zahar-berritzean aurkitu baitzuten. Horren ondorioz, maisu horri G Monogramagilea esaten zioten. Dena dela, interpretazio hori berehala gaitzetsi zuten, eta osteko ikertzailuek ez zuten izen hori kontuan hartu<sup>16</sup>.

Nolanahi ere, margolari horien taldeak, eta gauza bera esan daiteke Cornelis Engebrechtszen kasuan, konposizio eta errepertorio formal orokortu eta estereotipatuak erabiltzen dituzenez, oso zaila da lana norena den esatea, lanetan antzekotasun handiak daude-eta.

Engebrechtszen pieza autografoetan, esate baterako, Leidengo Stedelijk Museumeko Gurutziltzaketako [2. ir.] eta Erostatko triptikoetan, irudikatutako irudiak mugimendu birakarian agertzen dira asaldatuta. Gorputza

14 Hoffmann 1998. Adriaen van Overbecken Santa Ana eta Kempenen erretauletako azpiko marrazkia eta euren estiloa eta Bruselako triptikoa erkatu ondoren, autoreak argi eta garbi dio ez dagoela inolako ahaidetasun zuzenik, maisu horren edo bere tailerreko lana dela esateko (202. or.).

15 Philippot 1956. Maisua nor den jakiteko eta monograma interpretatzeko saialdia agertzen da hemen: Vanaise 1958.

16 Peter van den Brinken ustez, pintzelkada bitxi hutsa da. «Monograma» hori aztertzean ateratako ondorioa berbera da. Vanaisek, Philippoten tesiaren arabera, zenbait ikerketa egin zituen G monograma erabili zitzaizketen margolarien artean, Anberesko San Lukas Gremioan izena eman zutenak kontuan hartuta. Ikus Vanaise 1958, 132.-144. or.



3. Anberesko Adorazioaren Maisua (jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)

*Magoen Adorazioaren triptikoa*, c. 1519-1520

Olioa oholean. 29 x 22 cm (erdiko ohola); 29 x 8,5 cm (alboetako oholak)

Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes

Inb. zenb. 208-210



4. Anberesko Adorazioaren Maisua (jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)

*Magoen Adorazioaren triptikoa*, c. 1519-1520

Olioa oholean. 142,5 x 114 (erdiko ohola); 143 x 54 cm (ezkerreko ohola) ; 142 x 52 cm (eskuineko ohola)

Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Inb. zenb. 336

aurrerantz dute proiektatuta, bizkarra kurbatuta edo atzerantz dute eta burua diagonalean daukate irudikatuta. Berezitasun horiek Berlinen<sup>17</sup> zegoen *Manaren bilketa* laneko erretaulan ere antzematen dira. Lan horietan guztietan, antzeko apaingarriak daude; esate baterako, harri bananduak edo forma oinazetudunak eta hodei trinkoak.

Bilboko *Familia Santua bi santekin* lanean, ordea, konposizioa lasaia bezain orekatua da, eta, aurpegiak oso intimistak direnez, hasiera batean XV. mendeko margolari flandestarren tradizioarekin dago lotuta, nahiz eta Anberesko korrante manieristaren barruan sartu. Hain zuzen ere, antzekotasun handienak ditu Max J. Friedländerren arabera Anberesko Adorazioko Maisuarenak omen diren lanekin<sup>18</sup>. Lehenengo eta behin, artearen historialari horrek bost margolan eta, ondoren, bederatziz sartzen ditu Anberesko museoko *Errege Magoen Adorazioa* triptikoaren inguruko patronimikopean [3. ir.]. Orain arte, Bruselakoarekin batera [4. ir.], erreferentziako lana da maisu horren autoretzak zehazteko orduan<sup>19</sup>, baita gaur egun inork non dagoen ez dakien Familia Santua ere [5. ir.]<sup>20</sup>.

Azkar-azkar ikusiko dugu zer antzekotasun dauden «galdutako» Familia Santuaren eta Bilbokoaren artean, azken hori zehatz-mehatz aztertu baino lehen.

Mariaren aurpegiaren morfologia berdina da, proportzio falta berbera dagoelako bere bular zabalaren eta Umearen gorputz txiki bezain argalaren artean. Era berean, mantuko drapeatuaren aurkezpena aurrez aurrekoa da, eta hilarri-itxurako antzeko toles sakonez estalita dago. Belauna oso markatuta dago ehunaren azpian. Bi lanetan, San Joseren tipologia Pieter Coeckek eta bere tailerrak erabilitakoa da, eta taldea baino atzerago dago kokatuta. Santa Katalina modu arranditsuan jantzita dago, eta, hego zorrotzeko aingeruen jarrera manierista denez, Jan de Beerrek margotutako aingeruak datozkigu gogora. Diagonalean irudikatutako arkitekturaren estiloa ere hibridoa da; eta bere betearazpena, xehe-xehea. Azkenik, etxolak antzera txertatzen dira zuhaizdun paisaia ederrean.

Bilboko Familia Santuaren estiloa eta betearazpen-teknika aztertzean, argi eta garbi dugu nola lan egin zuen margolariak. Hori dela eta, bertan antzemandako ezaugarriak erkatu ditzakegu Anberesko Adorazioko Maisuarenak edo bere tailerrekoak omen diren lanekin.

Margolan osoaren efektua oso-oso zaindua da, nahiz eta aztertzean teknika piktorikoa azkarra den eta sistema errepikarietatik datorren. Santa Katalinaren brokatuzko tunikaren betearazpena<sup>21</sup> trinkoa da [6. ir.]. Enpaste biribil txikien bidez nabarmendutako zenbait marra hori fin edo puntu bakunak ikusten dira ehunean oso gutxi modulaturatutako atzealde marroian lautasunez trazaturako lore-apaingarrien barruan. Horrela, margolariak ondo antolatutako eta erradiografian argi ikusitako nolabaiteko bilbe grafikoa sortzen du argietan [7. ir.]. Erdiko tonuetan, hari horien ordeztu arrosa koloreko beste batzuk darabiltza, soinekorako eta bere mahuka zabaletarako tonuak aldagarriak izan daitezten. Atzealde arrosaren gainean, urdina darabil lausoduran fin-fin emandako geruzan [8. ir.]. Teknika bera antzematen da aingeru musikariaren hegoetan, baina betearazpen azkarragoa lortzeko, zenbait tonalitatetako atzealdeetan eman dira koloretako pintzelkada dinamikoak [9. ir.].

17 Erretaula hori Staatliche Museen zu Berlin-Dahlemeko Gemäldegalerierena zen, eta suntsitu egin zuten. Ikus Friedländer 1973, 56./57. lam.

18 Ikus Friedländer 1974.

19 Bruselako lanari dagokionez, ikus 15. oharra. Anbereskoari dagokionez, ikus Brink 2005, 69. zenb. Nabarmendu egin behar da triptiko hori Ipar Herbehereetako margolariena zela esan zutela XX. mendearen hasierara arte, eta, euren artean, Engebrechtsz zegoen. Hoffmannen testuan (ikus 14. oharra), berriro ere esaten da Adriaen van Overbecken tailerrean egindako lana dela Familia Santua (275. or.). Ez gaude ados berarekin.

20 Friedländer 1974, 59. lam.

21 Santaren bularrak gorputzaren gaineratikoaren aldean daukan posizioa oso zakarra da eta hasiera batean antzematen, baina margolariaren ahalguneak erakusten ditu. Antzeko silueta aurkitzen dugu Chicagoko Art Institutuen dagoen triptikoaren alboko oholeko Sabako erreginan bertan (inb. zenb. 1936.127) [37. ir.]. Izan ere, Martha Wolffen ustez, Anberesko Errege Magoen Adorazioko Maisuaren ekoizpenarekin dago lotuta. Ikus Wolff 2004. Benetan eskertzen diogu bere artikulua bidali izana.





© Babestutako materiala

5. Anberesko Adorazioaren Maisua  
(jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)  
*Familia Santua*  
Ez dakigu non dagoen gaur egun



© Babestutako materiala

6. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Santa Katalinaren brokatuaren xehetasuna



© Babestutako materiala

7. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Erradiografia



© Babestutako materiala



© Babestutako materiala

8-9. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Santa Katalinaren tunikako mahukaren eta aingeru musikariaren xehetasunak



10. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Ama Birjinaren mantu gorritik hartutako lagin baten ebakidura estratigrafikoa  
 1. Kaltzio-karbonatoz osatutako kolore zuriaren prestaketa (75 µm)  
 2. Bermiloiz osatutako kolore gorria (12 mm)  
 3. Laka organiko gorritz osatutako lausodura (10 mm)  
 4. Berpintaketa (6 mm)



11. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Ama Birjinaren eskuaren xehetasuna

Oraindik heze dagoen materia lantzeko modua paisaiako kolore urdinean errepikatzen da. Mariaren mantu gorriaren estratigrafia tradizionala da. Gorriminaren gainean, lausodura grantza-gorriak eman direnez [10. ir.], badirudi gainazala lisoa dela argi nabarietan izan ezik, hori lortzeko geruza zuri ildokatu arina ematen delako. Berunezko lerro zuri finek zenbait tolesen diseinua errepikatzen dute gainazalean.

Pintzelaz landutako haragi-kolore zuri-zuriek modelatu «heterogeneoa» ematen diote irudiari erradiografian, eta, geruza piktorikoaren zati bat higituta dagoenez, Ama Birjinaren aurpegian nabarmentzen da. Gainazalean, ordea, itxura lisoa da bekokiko eta sudurraren profileko argi-ukituetan izan ezik, margolariak bete-betean asmatzen duelako lausodurak erabiltzean, multzoari harmonia eman ahal izateko. Aurpegi eta lepoetako itzalguneak urdinxkak edo marroiak dira, eta, bertan ere, pintzelaren aztarnak igartzen dira. Ezpain puztuen profila egiteko, grantza-koloreko marra erabiltzen da. Begien tratamendua oso-oso zehatza da, eta betileetako lerroek zeharkatutako begi-nini beltz handien opakotasuna dute ezaugarri bereizgarri. Begiaren ertza azpimarratzeko, marra marroi ilun lodia erabiltzen da. Era berean, tulezko oihalen betearazpena ere bada azkarra, eta, bertan, marra zuriaren bidez baino ez da ingerada markatzen, azpiko materiaren gainean ehun gardenaren efektua lortu ahal izateko. Azkenik, aurpegitik leporako trantsizioa irudikatzeke, koloreen segida kontrastatua erabiltzen da: bi trazu marroi adoretzuk plano argia zedarrizten dute.



12-13. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra

*Familia Santua bi santarekin*

Bilboko Arte Ederren Museoa

Ama Birjinaren eskotearen eta Haurraren besoaren xehetasuna, eta xehetasun bera, erreflektografia infragorriarekin



14-15. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra

*Familia Santua bi santarekin*

Bilboko Arte Ederren Museoa

Zuhaitzetako adarren xehetasuna, eta xehetasun bera, erreflektografia infragorriarekin

Maisua ez da oso trebea eskuak irudikatzeko orduan, oso-oso luzeak eta zorrotzak direlako. Hatzen formak ez daude ondo zehaztuta, eta desitxuratuta daude, objekturen bati heltzen diotenean. Mariaren eskuek [11. ir.] trazu argiak dituzte erliebean ingeraden gainean, eta atzamarren ehundura modu soilean irudikatzen da zenbait marra arrosaren bitartez. Margolariak ez du inolako arretarik jarri urregintzaren, bitxien eta harribitxien irudikapen eskematizatuari, azkar egituratzeko moduko argi-ukituen sistema errepikariaz eginda daudelako.

Irudi erradiografikoa erraz irakurtzen denez, argi dago berunezko zuri asko eta asko erabiltzen dela koloreen konposizioan. Itxura argia eta nahikoa homogenea izan liteke, inprimazio-geruza zuria eman delako. Hori egitea nahikoa ohikoa zen XVI. mendeko margolan flandestarretan. Edonola ere, geruza hori ez da antzematen ez erradiografian ez gure esku dauden ebaki estratigrafikoetan. Dena dela, erreflektografian aurkituko dugula uste dugu<sup>22</sup>.

22 Arte-Lab, S. L. enpresak pigmentuen eta aglutinatzaileen azterketa kimikoak egin ditu. Margolanaren erradiografiak, ordea, SGS Tecnos enpresak egin ditu. Erreflektografia infragorriaren bidezko azterketa (Opus Instrumentseko Osiris taldearekin), ostera, Bilboko Arte Ederren Museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailak egin du. Eskerrak eman nahi dizkiegu tailerreko kideei eta, batez ere, José Luis Merinori, laguntza handia eman digutelako margolana aztertzeke orduan.



16-17-18. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes  
 Azpian dagoen marrazkiaren xehetasunak

Margolariak oso gune erreserbatu gutxi utzi ditu, paisaiako zuhaitzaren enborra eta pertsonaien ilearen bolumena izan ezik. Aitzitik, Santa Barbararen soineko zuria eserleku moduan darabilen hormatxoaren gainean dago margotuta. Era berean, aingeruak eurak ere badaude jauregiko fatxadaren gainean margotuta.

Erreflektografia infragorrian, azaleko marrazkia baino ez da azaltzen. Pertsonaiak oso azkar daude jarrita ingeraden trazatuaren bidez, eta zenbait plano marradunek itzalak zehazten dituzte tolesen sakontasunean. *Pentimentiak* gutxienekoak dira, eta Mariaren lepo puntaduneko eta Jesusen eskuin besoaren ingeradakoa dira garrantzitsuenak [12. eta 13. ir.]. Era berean, konposizioaren erdialdean kokatutako zuhaitza ere badago aldatuta [14. eta 15. ir.]. Jatorriz, hostotzak beheko adarrak estaltzen zituen, baina behin betiko bertsioan biluzik agertzen dira. Horrela, margolariak paisaia garbitzen du, eta adierazkortasun handiagoa ematen dio zuhaitzari.

Azpiko marrazkiaren behaketak datu osagarri bat eskaintzen du margolana Engebrechtsena ez dela esateko. Izan ere, margolari horrek pintzelaren bidez beltzean trazatutako marrazki landu-landua egiten du bere konposizio guztietan<sup>23</sup> eta forma gehienak zenbait trazu paraleloren bitartez estaltzen ditu, zeintzuk, sarritan, itzal bizietan gurutzatzen baitira. Bilboko oholeko marrazkiko ekonomia arazotsua da lana Anberesko Adorazioko Maisuarena dela esan nahi badugu; izan ere, oro har, maisu horren marrazkia xehea da, batez ere Bruselako nahiz Anberesko museoetako *Errege Magoen Adorazioa* triptikoetako konposizioetan. Gaur arte, autografotzat hartzen dira, hain zuzen ere.

23 Filedt Kok 1999, 19.-28. lam.



19. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela  
 Azpian dagoen marrazkiaren xehetasuna

Horrela, bada, Bilboko Familia Santuaren azpiko marrazkia Peter van den Brinkek erreplektografia infragorriaren bitartez aztertutako bi lan hauetatik aldentzen da<sup>24</sup>. Anberesko Adorazioan, agiritan agertzen den marrazkia lineala bezain xehea da [16. eta 17. ir.], paisaian bertan ere bai, eta pintzel fin-finaren zein erdi likidoaren bidez eginda dago. Marrazki modelatua ere baduela esan daiteke [18. ir.]. Artistak trazu paraleloen edo gurutzatuen planoak erabiltzen ditu, eta, itzal bizienetan, formak zeharkatzen dituzte, garaiko grabatuetako estiloaren adierazgarri<sup>25</sup>. Bruselako Adorazioan, ordea, trazuak zabalagoak dira, eta serie erregularragoan daude antolatuta [19. ir.]<sup>26</sup>, batez ere lanaren formatua oso handia delako. Hala ere, idazkera bera ere desberdina dela esan liteke.

Marrazkiaren ezaugarriak baieztatzean, lan-hipotesi bikoitza sortzen zaigu: edo ez du Anberesko Adorazioko Maisuak egin, edo margolariak, edonor dela ere, ez zuen inolako laguntzarik behar izan margolana egiteko orduan, konposizioa ezaguna zelako beretzat eta margotutako edo marraztutako modeloak zituelako tailerrean [20. eta 21. ir.]<sup>27</sup> eta haien kalkoa egin ahal izan zuelako. Bestetik, baliteke landuagoa den marrazkiren bat egotea azpian eta, arrazoiren batengatik, ez egotea erradiazio infragorrien bidez ikusterik<sup>28</sup>.

24 Brink 2002. Brink 2005. Anberesko triptikoa formatu txikikoa da.

25 1984. urtean adierazi genuenez, antzekotasunak daude Anberesko manieristen azpiko marrazkiaren eta Alberto Dureroren grabatuen artean. Ikus Périer-D'leteren 1984. Harrezkero, zenbait autorek marrazkien eta grabatuen antzekotasunak bildu dituzte hemen: Brink/Martens 2005.

26 Trazuak begi bistakoak dira, Bruselako Epifaniako arropa gorri eta zurietako indar estalgarria galdu egin delako.

27 Oxfordeko Ashmolean Museumeke bilduman tintaz eta lumaz egindako marrazkia (Parker 1938, 1.-2. or.) debozio-margolan txikiatarako modeloen adibideetakoa da eta ez dira oso ugariak. Marrazki zulatua da (txantiloiz pintatzekoa), eta konposizioa mekanikoki kopiatzeko erabiltzen da. Giro orokorrak, pertsonaien tipologiak eta santen aurpegiak Bilboko Arte Ederren Museoko Familia Santua dakarkigute gogora, eta antzekotasunak dituzte multzo estilistiko bereko beste margolan batzuekin. Hartara, adibidez, eskuineko santaren aurpegiak Santa Katalinaren zein Santa Barbararen aurpegiak dakarkigute gogora. Ezkerretara dagoen Santa Katalinaren aurpegiak, ordea, Chicagoko Art Institutetako triptikoko alboko oholeko Sabako erreginaren aurpegi dakarkigute gogora (ikus 21. oharra; Parker 1938). Antzeko gaia eta konposizioa dituen beste margolan bat dago Aquisgrango Suermondt-Ludwig Museoa, eta, antza denez, modelo beretik dator. Beraz, bere estiloa kontuan hartuta, baliteke Anberesko Adorazioko Maisuaren tailerrean ere egin izana. Nolanahi ere, bigarren mailako margolantzat hartzen da. Ikus Villwock 1995-1997. Artikulu horren egilearen esanetan, margolana Jan de Beerrena eta bere zirkularena da, nire ustez oker badago ere.

28 Baliteke fenomeno hori RIR bidez antzematen ez den marrazki-pigmentu baten edo inprimazio-geruzaren ondorioz sortu izana. Gai horri buruz, ikus Leefflang 2007. Antzeko kasua agertzen da hemen: Leefflang 2003.



20. Anonimo flandestarra  
*Santa Katalinaren ezkontza mistikoa*, c. 1520  
 Arkatza eta tinta txinatarra pintzelarekin, paperean  
 24,1 x 31,5 cm  
 Ashmolean Museum, University of Oxford  
 Inb. zenb. WA1863.136



21. Jan de Beerren zirkulua (c. 1475-1528)  
*Ama Birjina eta Haurra, Santa Katalina eta Santa Barbararekin*, c. 1520  
 Tenpera oholari itsatsitako mihisean. 38,5 x 46 cm  
 Suermondt Ludwig Museum, Akisgran, Alemania  
 Inb. zenb. GK 309

Agerikoa denez, Anberesko eta Bruselako margolanek antzeko hiztegia partekatzen dute euren artean eta Bilboko Familia Santuarekin. Hiru margolanetako Mariaren aurpegia obalatua da, apur bat inklinatuta dago, ezpainak ondo marraztuta daude eta betazalak beherantz daude begi-nini beltzen gainean [22., 23. eta 24. ir.]. Bestetik, Jesusen itxura dibertigarria da, ile kizkurra du eta badirudi bere eskutxoak atzaparrak direla [25., 26. eta 27. ir.]. San Jose taldearen atzean dago hiruretan, eta, horrez gain, beste antzekotasun batzuk ere badaude: paisaiako gama kromatiko argitsua, behe-erliebeetan eskultura paganoen bidez apaindutako arkitektura hibridoa, zuhaitz-espezieak, etxeak eta zirriborro-itxurako pertsonaia txikiak [28., 29. eta 30. ir.]. Nolanahi ere, artearen historialari gehienek adierazi duten bezala, lotura estua daukaten arren, gure ustez bi triptikoen estiloa oso-oso desberdina da espirituari erreparatzen badiogu. Anberesko konposizioan, xal flota-garriak eta jarrera manieristak dira nagusi; eta Bruselakoan, estatismoa, bertako drapeatuak plastikoagoak direlako eta zurruntasun handiagoa ematen dietelako pertsonaiei. Horrez gain, lehenengoaren betearazpena fina, asaldatua eta laburra da xehetasun txikienetan ere. Bigarrean, ordea, astunagoa, adituagoa da, baina puntu batzuetan ez da batere zaindua. Gure iritziz, beraz, tailer bereko bi joera estilistiko dira, nortasun desberdinen adierazgarri. Paisaiaren sakontasuna, igorritako espazio-sentsazioa, degradatu kromatikoen sotiltasuna eta pertsonaia txikien banaketa argia Anberesko margolanaren zenbait ezaugarri dira, eta ez dira Bruselakoan agertzen.



22. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa

23. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes

24. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Ama Birjinaren aurpegiaren xehetasunak



25. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa

26. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes

27. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Haurren xehetasunak



28. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
Bilboko Arte Ederren Museoa

29. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes

30. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Paisaiaren xehetasunak



31. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
Bilboko Arte Ederren Museoa

32. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Drapeatuen xehetasunak





33. Anberesko Adorazioaren Maisua eta tailerra  
*Familia Santua bi santarekin*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa



34. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela

Arkitekturen xehetasunak

Bilboko Familia Santuak, ostera, filiazio sendoagoa du Bruselako Epifaniarekin. Zehatz-mehatz erkatuz gero, ageriko analogia estilistikoak eta teknikoak agertzen dira, nahiz eta formatua oso desberdina den eta, inolako zalantzarik gabe, funtzioa bera oso desberdina izan arren. Antzekotasun agerikoenak berrikusiko ditugu, gorago azaldu ditugun berezitasunak kontuan hartuta: ama Birjinaren eskuen eta aurpegiaren betearazpen teknikoak eta morfologia, leku argitsuenetan ile-motots zetatsuen masa argien bidez tratatutako adatsa [22. eta 24. ir.], Jesusen aurpegi loditxoaren delineazioa eta aurpegiera, bere begi dibertigarri handiak, horian enpastatutako kizkurtxoak, oso hatz laburrak dituzten eskuak, Errege Magoen eta San Joseren aurpegiaren egitura, urregintzako piezak irudikatzen erabilitako ukitu argi bezain enpastatuak, brokatuetako haria simulatzeko errepikatutako eta zaindutako marra hori fineko sistema, drapeatuetako gune argietan landutako pintzelkada eta euren forma biribila. Izan ere, pertsonaiaren anatomiara egokitzen dira belarrien eta izterren parean [31. eta 32. ir.]. Azkenik, estilo hibridoko eta zeruertz urdinxkako paisaidun arkitektura mota [33. eta 34. ir.], zeintzuen motiboak, gama kromatikoa eta teknika piktorikoa antzekoak baitira.

Era berean, zenbait analogia estilistiko ezarri daitezke beste margolan batzuekin. Hori dela eta, lehen multzoa egin daiteke tailer beraren barruan eta nortasun beraren inguruan. Lehenengo eta behin, *Familia Santua aingeru musikariek*in triptikoko ohol nagusia aipatuko dugu [35. ir.]. Bilduma pribatu batean dago gordeta, eta, lehen aldiz, Anberesen aurkeztu zen *ExtravagAnt* erakusketan. Bertan, hain zuzen ere, Peter van den Brinke<sup>29</sup> lana Anberesko Adorazioko maisuaren tailerrean egin zela adierazi zuen. Berrero ere, honako hauxe azaltzen da bertan: Ama Birjinaren aurrez aurreko jarrera eta kokapena, adatsa, aurpegi sendoa eta aurpegiera; mugimenduan dagoen Ume txikia; San Joseren aurpegiaren tipologia; eta paisaiako xehetasun berberak, mendiak urdinxkak dira-eta. Konposizio hau Bilbokoa baino monumentalagoa bada ere eta bere betearazpena kalitate handiagokoa bada ere, estilo arkaizante berbera dauka eta, horren ondorioz, bareta-

29 Brink 2005, 162.-168. or. Eskerrak eman nahi dizkiot Peterri, azterlan honetarako eman zidan laguntzagatik, triptikoaren argazkiak bidaltzean.



35. Anberesko Adorazioaren Maisua  
(jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)  
*Familia Santuaren triptikoa, aingeru musikariekin*  
Olio haritz-oholean. 69,5 x 52,8 cm (erdiko ohola)  
Bilduma partikularra

sun ezin apalagoa ere bada. Bi ezaugarri nagusi horiek berberak dira, eta, gure ustez, multzoaren bereizgarritasun nagusia dira.

*Errege Magoen Adorazioa* irudikatzen duen triptikoa ere aztertuko dugu [36. ir.]. Christie's etxeak 2010eko urtarrilean jarri zuen salgai<sup>30</sup>. Hasiere batean, lan hori Adorazioko Von Grooten Maisuaren lana zela esan zuten –Anberesko Adorazioko Maisuarekiko bereizketak nahasmendua sortu du sarritan–. Bere konposizio trinkoa Bilbokoaren antzekoa da, eta erdi gorputzeko pertsonaiak agertzen dira bertan. Margolanari erreparatuz gero, hizpide dugun lanean gertatzen den bezala, lasaitasun-sentsazioa da nagusi, eta hori ez da 1520ko hamarkadako pintura manierista gehienetan agertzen. Hori dela eta, ohol hauek eta, era berean, lehen aipatutako *Familia Santua aingeru musikariekin* triptikoak kutsu arkaizanteagoa daukate. Horrez gain, Ama Birjinaren aurpegia egiteko teknika ere oso antzekoa da, Bilboko margolanean azaldu den bezala eta Bruselako triptikoan ere antzematen den bezala. Xehetasunetako elementu batzuk ere badira antzekoak mahuka zorrotzen estiloan eta urregintzako piezen, paisaiaren, zuhaitzen zein arkitekturaren irudikapenean. Edonola ere, multzoaren estiloa astunagoa da, eta pertsonaiak bolumen handiagoaz daude gauzatuta.

Ondoren, bi margolan erantsiko ditugu: gaur egun Anberesko Arte Ederren Museoa dagoen *Maria Salome eta bere familia* [37. ir.] eta Gasteizko Arte Ederren Museoko *Errege Magoen Adorazioa*. 1950eko<sup>31</sup> hamarkadan, Anberesko Adorazioko Maisuarenak zirela adierazi zen. Hain zuzen ere, biek analogia estilistiko estuak dituzte, baina, batez ere, Ama Birjinaren eta Umearen aurpegietan. Azkenik, Maastrichteko Bonnefontenmuseumen alboko bi ohol daude, eta, barruko aldean, *Natibitatea* eta *Tenpluko aurkezpena* dituzte irudikatuta. Biak lan hauekin lotu daitezke, honako hauexek bezala: Chicagoko Art Institutetako *David erregeak Belengo zisternako ura jasotzen du* eta *Salomon erregeak Sabako erreginari egiten dio harrera* [38. ir.]<sup>32</sup>. Izan ere, tailer bereko lanak omen dira<sup>33</sup>.

30 Catalogue Christie's... 2010, 14.-17. or. Peter van den Brinkek proposatu du Anberesko Adorazioaren Maisuarena izan daitekeela.

31 Philippot 1956, 157.-166. or.; Vanaise 1959.

32 Ikus 21. oharra.

33 Brink 2002.



36. Anberesko Adorazioaren Maisua (jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*, c. 1520  
 Olioia haritz-oholean. 108 x 76,2 cm (erdiko ohola); 105,5 x 33,7 cm (alboetako oholak)  
 Bilduma partikularra

## Zer ondorio atera daiteke esandako guztia kontuan hartuta?

Bilboko Arte Ederren Museoko Familia Santua behin betiko txertatu daiteke Anberesko Adorazioko Maisuak eta bere tailerrean egindako lanen multzoan. Lotura zuzenagoa dauka Bruselako Epifaniarekin, eta lan hori, margolari-talde beraren barruan gertatutako truke kultural bizen ondorioz sortutako banakako ahaidetasunetatik haratago, estilo global unitario bezain eutsia du ezaugarri bereizgarri, eta, horren ondorioz, Anberesko Epifaniako asaldatuagotik urrunago dago.

Anberesko Adorazioko Maisuaren funtsezko margolantzat hartutako bi triptiko horiek erkatuz gero –biak alboko oholetan irudikatutako dohaintza-emaileak enkargatu zituen–, ageri-agerikoa da alde argiak daudela. Horren ondorioz, bi margolan-multzo desberdin proposatu behar ditugu tailer berean, eta Bruselako *Errege Magoen Adorazioa* lanaren inguruan bildu behar ditugu antzeko estiloa zein teknika dituzten zenbait lan. Euren artean, leku berezia dauka Bilboko Familia Santuak. Gure ustez, baliteke esku berak egina izatea, nahiz eta epealdi urrunetan eta beste testuinguru batean: hain zuzen ere, 1520ko hamarkada baino lehenagoko erretablea egiteko lankidetzan, artean estiloa zurrin samarra dela kontuan hartuz gero.

Gaur egun dakiguna kontuan hartuta, nahiz eta ikerketa bizi-biziki garatu diren, ez da Familia Santuaren prototipoa aurkitu, eta oraindik ez dakigu nor den maisua. Hala ere, margolan hau Bruselako triptikoa egin zuen esku berberak gauzatu zuela dioen hipotesia onartuta, azken lan horretan, Zirkunzizioaren gaiari buruzko alboko oholetan, hain zuzen ere, margolariak bere erretratua eskaintzen digu, baina bere izena ez, ordea [39. ir.]. Hori dela eta, agerian uzten du margolan honi garrantzi berezia ematen diola, enkargua baita. Izan ere, arrazoi hori dela eta, oso modu berezian zaindu zuen lana.



37. Anberesko Adorazioaren Maisua  
(jardunean XVI. mendeko lehenengo herenean)  
*Maria Salome eta bere familia*  
Olio haritz-oholean. 95 x 66 cm  
Koninklijk Museum voor Schone Kunsten, Anberes  
Inb. zenb. 5081

Maastrichteko alboko oholak, Chicagokoak [37. ir.] eta azken urteotan adierazitakoaren arabera Anberesko Adorazioko Maisuarenak edo bere tailerrekoak diren lanak Friedländerrek egindako katalogoan sartu behar dira inolako zalantzarik gabe. Gure ustez, gainera, ezin hobeto integratzen dira Bilboko Familia Santuaren multzo estilistiko berean.

*Familia Santuaren triptikoa, aingeru musikariek lanaren* [35. ir.] idazkera soltea da, eta tonu harmoniatsuak dira. Izan ere, baliteke Bruselako triptikoa eta Bilboko ohola egin zituen esku berberak egin izana. Hala ere, geroagokoa izango litzateke, betearazpena seguruagoa eta zainduagoa dela kontuan hartuta. Aitzitik, Christie's etxeko *Magoen Adorazioaren triptikoa* delakoan [36. ir.] agerikoa da talde bereko beste margolari batek margotu duela. Azkenik, baliteke tailer horretan Ashmolean Museumeke *Santa Katalinaren ezkontza mistikoa* marrazkia [20. ir.] erabili izana eredu moduan, bertan sortutako lanekin dituen filiazioei erreparatuz gero.

Horrela, bada, 1515-1520ko Anberesko margolari manierista anonimo horiek aztertzean sortutako zailtasun nagusira iritsi gara. Nahiz eta gaur egun artearen historialariek maisuaren identifikazioari buruz eta esku bakarreko autoretzari buruz hausnartzen ez duten, beste dilema bati aurre egin behar diote. Izan ere, antzeko idazkera-ezaugarriak eta hiztegi formal zein tipologikoko ahaidetasunak ezarri behar dituzte aztertutako margolanetako elementu estilistiko eta teknika piktorikoko elementu guztietan, eta margolari-talde edo tailer zehatz baten adierazgarri izan beharko dira behar besteko neurrian. Ezagutzan aurrera egiteko, ezinbestekoa da lotura duten beste margolan batzuetan «antzematea», margolanen zentzuzko multzo berrien proposamenak justifikatu ahal izateko. Hain zuzen ere, horixe bera egin nahi izan dugu Bilboko Familia Santua Anberesko



38. Anberesko Adorazioaren Maisua (zirkulua)  
 (jardunean XVI. mendearen lehen herenean)  
*David erregea, Belengo ura jasotzen, eta Salomon erregea, Sabako erreginari harrera egiten*, c. 1510-1520  
 Olioa oholean, mihisera eramana  
 73,5 x 27,5 cm; 73,2 x 27,7 cm  
 The Art Institute of Chicago  
 Inb. zenb. 1936.127; 1936.126



39. Anberesko Adorazioaren Maisua  
*Magoen Adorazioaren triptikoa*  
 Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Brusela  
 Artistaren autorretratuaren xehetasuna, eskuineko oholean

manierismorantz berbideratzean eta artelana Anberesko Adorazioko Maisuaren tailerrean integratzean; zehatzago esateko, Bruselako *Magoen Adorazioaren triptikoa* lanaren inguruan eratutako margolan-multzoan integratzean. Hori dela eta, margolana bere bidezko dimentsio historikoan lekuratu dugunez, erreferentziak lana da ikerketetarako testuinguru berria<sup>34</sup>.

34 Nire eskerrik beroena Valentine Henderiksi, eskuizkribua irakurtzeagatik eta iradokizun ezin hobeak egiteagatik.

## BIBLIOGRAFIA

### Bilbao 1998

*Laureano de Jadoren ondareko pintura flandestarra = Pintura flamenca en el legado Laureano de Jado*. [Erak. kat.]. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilboko Arte Ederretako Museoa, 1998.

### Brink 2002

Peter van den Brink. «Two unknown wings from a triptych by the Master of the Antwerp Adoration», *Art Matters : Netherlands Technical Studies in Art*, I. libk. Zwolle : Waanders, 2002, 6.-20. or.

### Brink 2005

—. «Triptych with The Adoration of the Magi», Peter van den Brink ; P. J. Martens (eds.). *ExtravagAnt! : a forgotten chapter of Antwerp painting, 1500-1530*. [Erak. kat., Anberes, Koninklijk Museum voor Schone Kunsten ; Maastricht, Bonnefantenmuseum]. Schoten : BAI ; Antwerp : Koninklijk Museum voor Schone Kunsten ; Maastricht : Bonnefantenmuseum, 2005, 162-166. or.

### Brink/Martens 2005

Peter van den Brink ; P. J. Martens (eds.). *ExtravagAnt! : a forgotten chapter of Antwerp painting, 1500-1530*. [Erak. kat., Anberes, Koninklijk Museum voor Schone Kunsten ; Maastricht, Bonnefantenmuseum]. Schoten : BAI ; Antwerp : Koninklijk Museum voor Schone Kunsten ; Maastricht : Bonnefantenmuseum, 2005.

### Castañer 1991

Xesqui Castañer López. «La pintura flamenca del siglo XV en el Museo de Bellas Artes de Bilbao : formas, temas, modelos», *Kobie* (Serie Bellas Artes), VIII. zenb., Bilbao, 1991, 4.-24. or.

### Castañer 1995

—. *Pinturas y pintores flamencos, holandeses y alemanes en el Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Bilbao : Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995.

### Catálogo de las obras... 1932

*Catálogo de las obras de pintura y escultura del Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Bilbao : Imprenta Provincial, 1932.

### Catalogue Christie's... 2010

*Catalogue Christie's New York : Old Master and 19th Century Painting*, I. atala, 2010eko urtarrilaren 27a.

### Filedt Kok 1999

Jan Piet Filedt Kok. «The workshop practice of Cornelis Engebrectsz : some preliminary remarks», Hélène Verougstraete ; Roger van Schoute (eds.). *Le dessin sous-jacent et la technologie dans la peinture, Colloque XII, 11 13 septembre 1997 : la peinture dans les Pays-Bas au 16e siècle : pratiques d'atelier, infrarouges et autres méthodes d'investigation*. Leuven : Uitgeverij Peeters, 1999.

### Friedländer 1973

Max J. Friedländer. «Lucas van Leyden and other Dutch masters of his time», *Early Netherlandish Painting*, 10. libk. New York ; Washington : Praeger Publishers, 1973.

### Friedländer 1974

—. «The Antwerp Mannerists : Adriaen Ysenbrant», *Early Netherlandish Painting*, 11. libk. New York ; Washington : Praeger Publishers, 1974.

### Hoffmann 1998

Godehard Hoffmann. «Der Annealtar des Adrian van Overbeck in der Propsteikirche zu Kempen : Werk und Werkstatt eines Antwerpener Manieristen», Wilfried Hansmann ; Godehard Hoffmann. *Spätgotik am Niederrhein : rheinische und flämische Flügelaltäre im Licht neuer Forschung*. Köln : J.P. Bachem, 1998, 117.-291. or.

### Lasterra 1969

Crisanto de Lasterra. *Museo de Bellas Artes de Bilbao : catálogo descriptivo : sección de arte antiguo*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1969.

### Leeflang 2003

Micha Leeflang. «The San Donato altarpiece by Joos van Cleve and his workshop», Farida Simonetti ; Gianluca Zanelli (eds.). *Indagini tecniche sulle opere genovesi di Joos van Cleve : giornata internazionale di studi, 13 marzo 2003, Galleria nazionale di Palazzo Spinola*. Firenze : Maschietto & Ditore, 2003, 25.-38. or.

**Leeflang 2007**

—. *'Uytnemende Schilder van Antwerpen'* : Joos van Cleve : atelier, productie en werkmethode. [dokortese]. Groningen : Rijksuniversiteit, 2007.

**Museo de Bellas Artes de Bilbao... 2006**

*Museo de Bellas Artes de Bilbao : guía*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2006 (ingelesezo ed, *Bilbao Fine Arts Museum : Guide*).

**Parker 1938**

K. T. Parker. *Catalogue of the collection of drawings in the Ashmolean Museum*. I. libk.: *Netherlandish, German, French, and Spanish schools*. Oxford : Clarendon Press, 1938.

**Pelink 1948-1949**

E. Pelink. «Cornelis Engebrechtsz : de herkomst van zijn kunst», *Nederlands Kunsthistorisch Jaarboek*, 's-Gravenhage, 1948-1949, 40-74. or.

**Périer-D'leteren 1984**

Catheline Périer-D'leteren. «Un dessin inédit du Maître de 1518 et les volets peints du retable I de Västerås», *Konsthistorisk Tidskrift*, Stockholm, 53. zenb., 1984, 47.-52. or.

**Philippot 1956**

Paul Philippot. «Le monogramme G, Maître de l'Épiphanie d'Anvers», *Bulletin des Musées Royaux des Beaux Arts de Belgique*, Bruxelles, 3-4. fasz., 1956, 157.-166. or.

**Vanaise 1959**

P. Vanaise. «De hersamenstelling van een zoekgeraakte compositie van de Meester der Antwerpse aanbidding», *Bulletin de l'Institut Royal du Patrimoine Artistique*, Bruxelles, 1959, 34.-40. or.

**Villwock 1995-1997**

Ulrike Villwock. «Untersuchungen zu einem Antwerpener Tüchlein der ersten Hälfte des 16. Jahrhunderts in Aachen», *Aachener Kunstblätter*, Düsseldorf, 61, 1995-1997, 449.-460. or.

**Wolff 2004**

Martha Wolff. «Hebrew Kings and Antwerp Mannerists», Volker Manuth ; Axel Rüger (eds.). *Collected opinions : essays on Netherlandish art in honour of Alfred Bader*. London : Paul Holberton, 2004, 279.-293. or.